

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Iñaki Ormazabal Garmendia*

*Ordizia,  
Gipuzkoa  
(1927-2018)*

Aurkibidea



## Biografia



1927an jaio zen Ordizian, Gudarien Etorbidea kalean. Aita Altzagakoa eta ama Lasartekoa zituen. Bost anai-arreba izan ziren. Moja karmelitetan eta Beasaingo La Sallen ikasi zuen. 13 urterekin hasi zen lanean aitarekin etxeko tailerrean ("Ederra" lantegian), bulegoan. Arbelak eta baserriko tresnenezako kirtanak egiten zituzten, baita partxisak eta beste zenbait gauza ere; Espainia osorako egiten zuten lan. 18 urterekin Zaragozara joan zen soldadutzara abiazioko boluntario modura. Ordizian ezkondu zen Abaltzisketako Martina Agirrerekin. Elkarrizketa biei batera egin zitzaien.

## Zintak

### ORD-028

- **Proiektua:** Ordiziako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-05-28
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

## Pasarteak

### 1. 1927an jaio zen Ordizian

- **Erref:** ORD-028/001
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### Laburpena:

1927an jaio zen Ordizian. Ama lasartearra eta aita Altzagakoa zituen eta 5 anai-arrebako familia zuen.

#### Transkripzioa

- Bueno, hasteko zure izena ta abizena esaten badizkietzu...
- Bai. Iñaki Ormazabal Garmendia.
- Ormazabal Garmendia? Eta ze urtetan jaio ziñen?

- Milla ta bederatziehun ta hogeita zazpin.
- Ta nun jaio ziñen, hemen, Ordizin?
- Ordizin.
- Kalen ala basarrin?
- Kalen.
- Ze kaletan?
- Ba, Gudarien etorbidea 1, uste det dala oain. Ez dakit ezautzen dezun han beheran sagardotegie...
- Ordiziko bukaeran?
- Bukaeran, sagardotegie, aldapan. Han [...] jaiotakoa naiz.
- [...] plazatik behera?
- Beherago, bai, eskubitea. Han.
- Han jaio ziñen?
- Han jaio nitzen.
- Eta gurasok ordiziarak?
- Ez.
- Gurasok, ama zan Lasartekoa eta aitte Alzagakoa.
- Alzagakoa?
- Alzagakoa. Baserrie Sarasola txiki aittena. Amana ez dakit.
- Zenbat anai-arreba ziñeten?
- Bost, arreba bat eta lau anai.

## 2. Euskaraz hitz egitea debekatua

- **Erref:** ORD-028/003
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:04:55. **Bukatu:** 00:07:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera

### Laburpena:

Fraide frantsesekin ere ibili zen eskolan. Euskaraz hitz eginez gero, zigorra izaten zuten. Izen euskaldunen inguruko orduko kontuak eta pasadizoak. Neskak eta mutilak aparte ibili ohi ziren eskolan.

### Transkripzioa

- Ni ibili nitzen gero, gero fraile batzutan hemen ibili giñen gero, hementxe, hemen fraile batzuk bazien...

- Karmelitetako hortan?

- Bai. Porke hue, hue txikitan zan, hue... nik zenbat denbora ingo nun, ba? Ez dakit. Urtebete, bi urte ingo nitun? E? Eta gero hemen zeak, frailek zien hemen. La Sallekok ez, e? Frantsesak. Hor´e ibili giñen.

- Nun zeon eskola hoi?

- Hemen, La Salle, ez dezu zuk ezautu eskola, sekula ez dezu ezautu? Hortxe. Hor pation, hortxe zeon etxea. Oin bota due, oin dala urtebete edo bi urte bota due hoi aparkamentuk-eta eitteko.

- Zaharren egoitza baiño beherago, ez?

- Martina: Eta karmelitak ere...

- Hoi Milagrosa edo ez zan?

- Milagrosa da goien, residentzin ondón Milagrosa. Hue oaindio han dao. Milagrosako edifizioa oaindio han dao. Bai.

- Eta horrea pasatu ziñenen, fraileekin´e baita erderaz?  
 - Bai, bai, bai, bai, dana erderaz zan orduan, e! Ordun euskerarik... ke ba!  
 Ezta, ezta, ezta...  
 - Eta euskeraz eitten bazenduen? Kastigau? Ze kastigo izaten zien?  
 - Martina: Bildurra zegoen.  
 - Ke ba!  
 - Ein´e igual ez zenduen ingo bildurrez, ezta?  
 - Martina: Bai, bildurra zegoen.  
 - Dana erdereza zan. Ordun euskeraz iñok ez zuen itten, e! Guk etxan eitten gendun. Nik daketen euskerea da etxekoa, e! Nik ez det ikasi, ikastolan ez naiz ibili! Nik gramatikaik-eta euskerazkoik ez dakit. Ikasitakoa.  
 - Martina: Izenak eta... Andoni, konkretua, nere lehengusuari jarri zien izena. Eta bildurrez, borratzeko ta... bildurrez.  
 - Euskaldun izena zalako, ezta?  
 - Martina: Hau, oain... ematen du lasai bizi...  
 - Ni Iñaki naiz, baiño ordun kendu in zien Iñaki ta Inazio izandu naiz. Oain hamar urte bitarte ofizialki Inazio izandu naiz ni. Ta aizkeneko kotxea erosi nuna, oain daukatena, oain dala 10-11 urte, esan nun: "Aprobetxatu in behar det aldatzea ahal baldin bada izena". E? Eta juzgadura jun nitzen, epaitegira, eta: "Noiz jaiio zea, ba?", "Holako egunetan" ta hala begiratu zun liburun eta esan ziten neskak: "Aiba! Ba, zu Iñaki zea! Zu hemen Iñaki... Bataiatu ziñenen Iñaki jarri zizuen eta juzgadun Iñaki azaltzen zea. Oseake, ez daukezu ezer paperik ezer egin beharrik". Ordun hasi nitzen, ba, karneta, bai konduzitzekoa eta bai identitatekoa, ba, aldatu in nittun. Ta kotxan dokumentzioa, pues, danak.  
 - Asike, garai hartan, ordun, euskeraz itteko bildur handia eongo zan...  
 - Bai, bai. Osea, dan-dan-dan-danak... Nik dauket bigarren anaie Ibon izena duna eta hori´re kendu in zien eta Juan jarri zioen. Juan...  
 - Eta neska ta mutil batera juten ziñeten eskolaa?  
 - Ez, ez, ordun ez.  
 - Ez frailetan eta ez karmelitetan?  
 - Frailetan neskarik ez zan ibiltzen. Mutilek bakarrik.

### 3. Gerra denboran, ama eta amona Soraluzeko izebaren etxera

- **Erref:** ORD-028/004
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:12:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak

#### Laburpena:

Gerra denboran, ama Soraluzeko izeba baten etxera zihoala gertatutako pasadizoa kontatzen du. Amona eta aitarekin geratu zen Iñaki. Gerora, amona ere Soraluzera joan zen, eta orduko pasadizoa kontatzen du.

### 4. Soraluzetik etxera bueltan gertatutakoak

- **Erref:** ORD-028/005
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:12:44. **Bukatu:** 00:14:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak

**Laburpena:**

Etxera bueltan etorri zirenean, Zumarragan geratu behar izan zuten eta orduko kontuak kontatzen ditu. Soldaduekin gertatutako anekdota bat.

**5. Gerra denboran goserik ez**

- **Erref:** ORD-028/006
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:14:12. **Bukatu:** 00:16:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

<p>Bonbak ezagutu zituen katean, eta inguruko etxe batean bonbak utzitako arrastoa aipatzen du. Gerraostean, ez zuten goserik pasa etxean. Babarrunak eta ogia ematen zizkieten lagunak zituzten. Ogia amonak egiten zuen etxean. Gertueneko errota Zaldibian zuten. Taloak ere egiten zituen amonak.</p>

**6. Errazionamenduaren inguruko kontuak**

- **Erref:** ORD-028/007
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:16:55. **Bukatu:** 00:18:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena:**

Dendetan kupoiak ematen zituzten errazionamendurako. Ogi txarra izaten zen errazionamendukoa.

**7. Baratzea, oiloak eta txerri-hiltzea**

- **Erref:** ORD-028/008
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:18:09. **Bukatu:** 00:22:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak
- Baserría » Baserríko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserríko lanak » Abere-hiltzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

**Laburpena:**

<p>Etxe ondoan baratzea zuten eta amona aritzen zen etxerako landaketan. Oilategia ere bazuten eta arrautzak etxerako jasotzen zituzten. Arrautzak kontserbatzeko karetan sartzen zituzten. Txerria urtean behin hiltzen zuten hiltegian; l&ntilde;aki eta anaiak nola hiltzen zuten ikustera joaten ziren. Odolkiak egiten zituen amonak eta ezagunei emateko ohitura izaten zen.</p>

**8. Kontabilitatea ikasi zuen**

- **Erref:** ORD-028/009
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

**Laburpena:**

<p>Fraideetan denbora gutxi egin zuen, gerora alde egin baitzuten, eta partikular ikastera joaten zen. Irakasle eskasia zegoen orduan. Kontabilitatea ikasten zuen.</p>

**9. Eskolara bizikletan**

- **Erref:** ORD-028/010
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:23:00. **Bukatu:** 00:25:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

**Laburpena:**

<p>Beasainera eskolara bizikletan joaten zen. Beasain eta Ordiziaren artean pikea zegoen eta bizikletan pasatzerakoan egiten zizkietenak kontatzen ditu. Aita zenaren bizikleta zuen.</p>

**10. Aitaren egur tailarrean lanean**

- **Erref:** ORD-028/011
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:25:16. **Bukatu:** 00:28:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

**Laburpena:**

Aitak tailer txiki bat zuen etxean bertan eta 13 urterako eskolan ibili arren bulegoan hantxe hasi zen lanean. Makinan idazten eta kartak idazten bazekien. Eskolako arbelak egiten zituzten Espainiako bakarrak ziren. Gerran zeuden gizonen emazteak lan egiten zuten bertan eta aitak erakusten zien.

## 11. Igandero mezara; fede handia

- **Erref:** ORD-028/013
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:29:46. **Bukatu:** 00:32:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

### Laburpena:

Igandero joaten ziren mezara eta fraideetan eskolan ibili zenean arratsaldeetan bezperetara ere joaten zen. Meza seietan hasten zen. Fede handia zegoen eta etxean arrosarioa erreztatzen zuten lentejei harriak kendu bitartean.

## 12. Tabak, kanikak eta abar jolaserako

- **Erref:** ORD-028/014
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 00:32:33. **Bukatu:** 00:37:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

### Laburpena:

Umetan, trapuzko baloiekin jolasten zuten. Tabak, kanikak eta abar izaten zituzten jolaserako. Kanikak porlanezkoak eta kristalezkoak izaten ziren. Orduko pasadizoak kontatzen ditu. Jolas ugariaren aipamena.

## 13. Anai-arrebekin jolasten zuen

- **Erref:** ORD-028/015
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:37:32. **Bukatu:** 00:38:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

### Laburpena:

Lagun artean ez ziren asko ibiltzen, anai-arrebekin ibili ohi zen. Iñaki ez zen kale zalea, etxean laguntzea eta etxeko giroa atsegin zuen. Anai-arreben aipamena.

## 14. Kotxeko karneta ateratzera Donostiara

- **Erref:** ORD-028/017
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:40:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

**Laburpena:**

Etxean eurekin bizi zen osabak ehizako kontuak kontaktzen zizkien eta eskopeta erosteko gazteegiak zirelako penetan egoten ziren. Kotxeko karneta ateratzera Donostiara joaten zen trenez.

**15. "Ederra", aitaren lantegia; Espainiara esportazioak**

- **Erref:** ORD-028/019
- **Iraupena:** 0:04:49. **Hasi:** 00:40:46. **Bukatu:** 00:45:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

**Laburpena:**

Lantegian arbelak, pilotarako palak, kirtanak eta abar egiten zituzten eta ordezkarien bidez Espainia osora saltzen zituzten. Lantegiko makinaren inguruan hitz egiten du. "Ederra" zuen izena lantegiak. Materiala garraiolariak eramaten zien.

**16. Soldadutzara Zaragozako abiaziora 18 urterekin**

- **Erref:** ORD-028/020
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:45:35. **Bukatu:** 00:50:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

**Laburpena:**

<p>Soldadutzara 18 urterekin joan zen Zaragozako abiaziora boluntario. Boluntarioek beraiek erabakitzen zuten nora joan. Trenez joan zen. Osaba batek lagunak zituen bertan eta horri esker bulegoan jarri zuten. Apopilo egon zen etxe batean. Soldadutzako kontuak kontaktzen ditu.</p>

**17. Soldadutzako pasadizoak**

- **Erref:** ORD-028/021
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:50:03. **Bukatu:** 00:53:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

**Laburpena:**

<p>Abizioko lekuan egon zen San Jurjon eta iritsi orduko manteatu egin omen zuten. Uniforme dotorez jantzita ibiltzen ziren. Goserik ez omen zuen pasa. Meloia hantxe jan zuen lehenbiziko aldiz. Soldadutzan zegoela ama hil zitzaion.</p>

**18. Soldadutzako lagunak**

- **Erref:** ORD-028/022

- **Iraupena:** 0:06:10. **Hasi:** 00:53:16. **Bukatu:** 00:59:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

**Laburpena:**

Soldadutzatik etxera bueltatu eta aitaren lantegian jarraitu zuen lanean. Soldadutzako zigorretako batzuk, kalabozora sartzea eta ilea moztea izaten ziren. Errenteriar bat zuen gertueneko laguna, gainontzekoak ez ziren hemengoak. Han egindako lagunen aipamena eta oporretan haietako lagun batekin elkartu zeneko pasadizoak kontaktzen ditu.

## 19. 1953an Ordizian uholdeak

- **Erref:** ORD-028/023
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:59:26. **Bukatu:** 01:01:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Natura » Meteorologia

**Laburpena:**

Ordizian uholdeak izan zirenekoa kontaktzen du. 1953an izan ziren eta urte hartantxe ezkondu zen bera. Ordizia baino ingurua gehiago hondatu zen.

## 20. Argia, ura, telefonoa eta irratia

- **Erref:** ORD-028/024
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:01:19. **Bukatu:** 01:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

**Laburpena:**

Argia eta ura beti izan zuten etxean. Telefonoa ere ezagutu zuen; norbaitekin hitz egiteko lehenengo zentralera deitzen zen eta harek jartzen zuen hitz egin nahi zen harekin. Irratia berandu ezagutu zuen.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-03-30*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com